

ERRETERIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA



Plan Orokorraren Bulegoa
Oficina del Plan General

VII. JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA



VII.01. ANALISIA ETA DIAGNOSTIKOA.

Udaleko jarduera ekonomikoa nabarmen aldatu da azken urteotan Errenerian izan diren aldaketa sakonen eraginez. Hirurogeiko hamarkadan eta laurogeiko hasieran, jarduera ekonomikoaren ikuspegiari dagokionez, herria batez ere bigarren sektorean ari zen lanean, gaur egun ordea arlo honek garrantzia galdu du eta hirugarren sektorea da indartu dena, hauxe baita Herriko biztanleen artean nagusi den sektorea.

Atal hau hainbat erakundek emandako informazioa kontuan hartuz egin da, hala nola, Erreneriako Udalak, EUSTATEk, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Erreneriako INEMek emandakoaz. Informazio hau egiaztatu eta aldatu egin da landa-lanak hala eskatu duenean. Landa-lan hau 2000ko azaroan eta abenduan egin da.

Lehen sektoreko jarduera, nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreari loturik dagoena, oso urria da. Gutxi dira udalean dauden nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenak; hirurogeiko hamarkadatik jada badatorren egoera, hain zuzen ere. 1999ko erroldan 167 ustiapen eta 2.597 hektarea zenbatu zituen, (batez besteko tamaina 15,55 ha-koa da) eta hauetatik 97tan abelazkuntzan dihardute, batez besteko 6,46 ha-ko tamainarekin eta gainerakoek, 69k, batez beste 28,53 ha-ko tamaina dute. Ustiapenen %96k (161) pertsona fisikoen titulartasuna daukate. Bi merkataritza-sozietate daude, erakunde publiko bat eta ustiapenerako bi Eraldaketako Nekazaritza Sozietate.

Ustiapenetako ganadua, Erroldaren arabera, honela dago banatuta:

Espezieak	Ustiapen kop.	Abelburu kop.
Behi-azienda	68	677
Ardi-azienda	36	1.914
Ahutz-azienda	13	80
Txerri-azienda	7	1.766
Zaldi-azienda	15	28
Hegaztiak	72	2.000
Untxi amak	22	195
Erlauntza	1	25

Sortutako enplegua oso urria da. EUSTATEk soldatarik gabeko 276 langile daudela adierazten du. Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza departamentuak zenbatutakoaren arabera, hirurogeita hamar baserrian nekazaritza-jarduera erabatekoa da edo nagusia behintzat eta hogeita hamazazpitan partezkoa edo zatizkoa besterik ez da. Udalerriko biztanleria aktiboaren %1ek bakarrik dihardu lehen sektorearekin zerikusia duten jarduera ekonomikotan, nahiz Errenerian nahiz beste herrialde batzuetan lan egin. Sektoreko berezko jarduera bezala, udalean bi hegazti-granja eta gaztandegi bat daude. Horrez gain, bada nekazalturismoan diharduen baserri bat ere Aldurako inguruan.



Gaur egunean Errenteriarekin zerikusirik duen meatzaritarako eskubide bakarra "Coto Rofer-Buenaventura" izeneko ustiapen-lizentzia da, Astigarragako Udalerriaren muga.

Baserrik gehienek gutxieneko nekazaritza eta abelazkuntzako jarduera dute eta bertako biztanleek egiten duten bigarren eta hirugarren sektoreko jardueraren osagarri bezala antolatuta daukate; hortik dator sektore honetan soldatarik gabeko hainbeste langile izatea.

Industriaren sektorea oso urria da. Euskal Industriaren katalogoaren arabera (Euskadi 2000) herrian hogeit hamar industria daude. Hau da egindako zerrenda:

INDUSTRIAK	LANGILE-KOP.
ABB IBERCONTA S.A.	276
CONSTRUCCIONES ALZOLA S.A.	40
CONSTRUCCIONES ERREZTI S.A.	80
CONSTRUCCIONES METALICAS UGALDETXO S.A.L.	17
ELECTROMONTAJES S.C.L.	13
EUROUTIL S.A.	51
HIERROS IGUIÑIZ	10
INTEGRACIÓN INDUSTRIAL ELECTROCIKA S.L.	10
LECUONA S.A	27
MECANOPLASTICA S.A.	86
MOLXER S.A.	26
PAPRESA S.A.	264
FIXTOR S.A.	42
TALLERES GRAF S.A.	32
TALLERES TALDE S.A.L.	12
TALLERES Z.B. S.A.	26

Iturria: Euskal Industriaren Katalogoa

Horri gehitzen badizkiogu herrian barrena dauden tailer edo lantegi ugariak bai eta euren funtzio nagusiarekin batera bigarren mailako funtzio industrialak dituzten jarduerak ere, ehundik gora establezimendu edo lantegi zenbatu ditzakegu.

Adierazi beharra dago udaleko industria-lizentzia asko dendei lotuta daudela: jantzigintza-lantegiak, bitxigintza eta erlojugintza, etab. Beraz, oso sektore heterogenoa dela esan dezakegu, orain dela berrogei urte zegoenarekin alderatuta. Garai hartan lehengaien eraldaketarako lantegiak ziren nagusi eta lantegi bakoitzean langile mordoa bildu ohi zen.

Metalak eraldatzeko industrien taldea da nagusi, 53 lizentzia baititu. Industria-arloko lizentzia guztien %47 biltzen du.

Eraikuntzaren sektoreak enpresa-kopuru urria dauka, baina sektore honi langile autonomo kopuru handi bat gehitu behar zaio.



Plan Orokorren Bulegoa
Oficina del Plan General

Hirugarren sektorea da nagusi lanean diharduten herritarrei dagoekenez. Herritar hauetako batzuek eskualdeko beste herri batzuetan egiten dute lan: Donostian eta Oiartzunen, batez ere.

Elikadura-zerbitzuak, elikagaien, edarien eta tabakoaren txikizkako merkataritzak, eta establezimendu iraunkorretan egindako elikaduraz kanpoko produktu industrialen txikizkako merkataritzak guztira 550 establezimendu biltzen dituzte.

Finantza-erakundeek, asegurek, higiezinen inguruko jarduerak, eta abarrek 78 establezimendu biltzen dituzte. Oso deigarria da zerbitzu pertsonalen kopuru handia (ile-apaindegiak, batez ere) 112 establezimendurekin.

Irakaskuntzako, osasuneko, erlijio- eta abarreko ekipamenduak ehundik gorakoak dira. Nabarmenezkoak dira erlijio-ekipamenduak (13), irakaskuntzakoak (44), kulturakoak (27) eta sanitarioak (35).



VII.02. ENPLEGUA ETA LANGABEZIA

VII.02.01. Enplegua eta jarduera.

Udaleko jarduera ekonomikoan hainbat urtetan zehar eragina izan duen industria-krisialdiak, industria-arloko enpresa askoren itxiera eragiteaz gain, aldaketa handiak eragin ditu. Lehenik, okupazio-tasaren beherakada nabarmena, produkzio-jardueraren eta eredu ekonomikoen aldaketa ugarien ondorioz eta horrez gain, sektoreen arabera aktiboen birbanaketan izan den aldaketa nagusiaren ondorioz.

Garai batean udaleko langileen erdia industria-sektorean zebilen arren, gaur egunean hirugarren sektorea da enplegu-kopururik handiena sortzen duena.

Udaleko biztanleen jarduera ekonomikoaren zati garrantzitsu bat Donostialdea osatzen duten udaletan sortzen da.

Biztanleria aktiboa, lurraldeko batez bestekoa baino urriagoa dena (54%) honela dago banatuta sektore ekonomikoei eta portzentajeei dagokienez:

LEHEN SEKTOREA	BIGARREN SEKTOREA	ERAIKUNTZAREN SEKTOREA	HIRUGARREN SEKTOREA	GUZTIRA
1	30	10,2	58,8	100

VII.02.02. Langabezia.

Gaur egunean, langabeziak murrizteko bidea hartu du argi eta garbi. Errenteriako INEMeko eskualde-bulegoak (Beraunen dagoenak) emandako datuen arabera 1977tik 2000 urtera arteko aldiaren bulegoan izena emanda zutenen kopurua jaitsi egin da lan bila zebiltzanen 4.292 izenemateetik 2.664 langileraino, erantsitako taulan adierazten denez. Datu hauetan Pasaia, Lezo, Oiartzun eta Errenteriako langabeziaren datuak agertzen dira.

URTEA	IZENA EMANDAKOEN KOP.
1997	4.292
1998	3.610
1999	3.092
2000	2.664
1997-2000 aldia	- 37,93%

Aldi horretantxe Gipuzkoan izan den langabeziaren beherakada %35,59koa izan da, Errenteriako INEMeko bulegoetan izan den kopurua baino pixka bat urriagoa. Bulego honetan izena emandako 2.664 lagunetik, %26,84 langabezia 24 hilabetetik gorako



denbora daramaten langileak dira; hau izanik portzentajerik handiena, 3 hilabetetik beherako langabetuen kopuruaren atzetik (%32,35).

Errenteriako INEMen izena emandakoen %58,78 (1.566) udalekoak dira. Kopuru hau murrizten ari da argi eta garbi, izan ere 1998ko amaieran langabetuen kopurua 2.057 lagunekoa zen eta urte bete lehenago 2.300 baino gehiago ziren (2.379, hain zuzen ere). Beraungo bulegoan izena emandako Errenteriako 1.566 langabetuetatik %58,36 emakumeak dira (914 langile), eta gizonen kopurua 652koa da. Langabezia-tasak aktiboen guztirakoaren %14,8 hartzen du.

Eskualdeko eta lurraldeko joera orokorrari jarraituz, udalean ere nabarmen jaitsi da langabetuen kopurua. 1998 eta 2000 urteen artean, lana eskatzen dutenen kopurua %23,9 murriztu da; Errenteriako INEMeko jarduera-eremua osatzen duten lau udalerriak baturik dagoen portzentajea baino pixka bat gutxiago. Jarduera-ekonomikoko sektoreen arabera lan bila zebiltzan 1.566 emakumeak honela banatuta zeuden:

SEKTORE EKONOMIKOA	ESKATZAILEAK
Nekazaritza eta abelazkuntza	7
Arrantza	18
Erauzpen-industirak	1
Manufaktura-industriak	366
Elektrizitatea, gasa eta ura	1
Eraikuntza	118
Merkataritza, konponketak	213
Ostalaritza	130
Garraioa eta komunikazioak	43
Finantza-bitartekaritza	7
Higiezinak eta alogerak	292
Adm. Publikoa, Defentsa eta GS	60
Hezkuntza	41
Jard. Sanitarioak eta gizarte-zerbitzuak	42
Beste hainbat gizarte-jarduera	79
Etxeko langileak	8
Aurrez lanik ez zutenak	140

Lan bila dabiltzan 40 urtetik gorako biztanleak 717 dira, guztirakoaren %45,78. Daukaten adina dela eta, teknikoki laneratzen zailak bezala hartzen diren langabetuak dira.

Eskatzaileen ikasketa-mailari dagokionez, orokorrean eskolatze-ziurtagiria, OHO eta BBB duten langileak ditugu eta %77,01 dira. LH duten eskatzaileen kopurua 194koa da eta %12,38 biltzen du, eta erdi mailako eta goi mailako tituludunen kopurua 160koa da, %10,21 bilduz.



VII.03.
ARAU SUBSIDIARIOAK ONARTU ONDOKO BIGARREN SEKTOREAREN GARAPENA

VII.03.01. Masti/Loidi (2002ko abenduko egoera)

LURZATI ZK.	ZONA	JARDUERA	TITULARRA	EGILEA Obra-Proiektua Jarduera-Proiektua	Jarduteko lizentzia	Obra- lizentzia	Irekitzeko lizentzia
	M-1	Bizilekutarako Eraikina					
2	M-2						
4	M-3						
6	M-4	Hainbat elikagairen banaketa	Distribuciones Martin, S.A.	Ane Atxurra Eizagirre		01.08.17	
12	M-5	Salgaien dep. eta biltegia	Ss.Sanitarios Oarso S.A.	Arruab./Peñalba (ark)	00.03.14	98.08.28	salbuetsia
7	M-6.1	Aurrez prestatuak eta hestebeteak	Urkabe-Benetan	Javier Legasa García		01.04.06	
9	M-6.2	Aurrez prestatuak eta hestebeteak	Urkabe-Benetan	Javier Legasa García		01.04.06	
11	M-6.3	Aurrez prestatuak eta hestebeteak	Urkabe-Benetan	Javier Legasa García		01.04.06.	
8	M-7	Bizilekutarako Eraikina					
14.A	M-8.1	Inst. elek, sare-inst. eta merkat. Aparailuak	Dardarak	J.A. Gurruchaga(I.I.)	99.07.02	98.09.11	salbuetsia
14.B	M-8.2	Ponp. ekip. erosi, konpon., instal., mant.	Urapres	J.A. Gurruchaga(I.I.)	99.12.02	98.09.11	salbuetsia
14.C	M-8.3	Forj., estanp., trokel. eta mozketa	Cristalería Oarso, S.C.L.	J.A. Gurruchaga(I.I.)	01.11.22	98.09.11	
14.D	M-8.4	Zura, kortxoa eta zurezko altzariak	Carpintería Salaberría, S.C.L.	J.A. Gurruchaga(I.I.)	01.06.26	98.09.11	
10	M-9	Galdaket. molde eta tresnen fabrikazioa	Euroutil, S.A.	J.A.Gurruchaga (I.I.) Glez. Mangas (I.I)	99.11.10	98.05.08	00/11/13
13.A	M-10.A	Ur-kontagailuen fabrikazioa	ABB-Iberconta, S.A.	Martin Barrena Agirre		01/03/09	
13.B	M-10.B	Ur-kontagailuen fabrikazioa	ABB-Iberconta, S.A.	Martín Barrena Agirre		01/03/09	
13.C	M-10.C						
16	M-11	Bestelakoak	Lizarribar Sans, Jorge			01.11.08	
16.A	M-11.A	Karrozeria	Carrocería L.B.			01.11.08	
16.B	M-11.B	Karrozeria	Calderería Billar			01.11.08	
16.C	M-11.C	Antenak	Antenak Irma			01.11.08	
16.D	M-11.D	Ostalaritzako horniketak	Elzu			01.11.08	
18	M-12.1	Drogeria eta usaingarrien biltegiak	Basmo-Decoración	F. J.Larrea Madrazo(I.I)		98.08.05	



Plan Orokorraren Bulegoa
Oficina del Plan General

20	M-12.2	Lantegi okupazionala	Gureak	Arkilan (arktuak);Inconor (IS)	00.09.15	99.06.25	01.05.31
22	M-12.3	Bestelakoak	Fnd. Sarea (Cáritas)	I. Palacio (Arkitektua)		98.08.25	
22	M-12.3.1	Catering	JAKIPREST		01.01.19	98.08.28	
	M-12.3.2	Jantzigin. eta Irakask.	JAZKILAN		01.01.19	98.08.28	
	M-12.3.3	Bulegoak	OFICINAS		01.08.01	98.08.28	
	M-12.3.4	Industria-soldaketa	HASBIDE		01.02.07	98.08.28	
	M-12.3.5	Piez. akabera/irakask.	SOLITEK			98.08.28	
	M-12.3.6	Arropa-lisatzea	JAZKIPRET		01.01.19	98.08.28	
	M-12.3.7	Arropa-biziklapena			01.04.10	98.08.28	
	M-12.3.8	Jantzien diseinua eta jantzigintza	JASKITEK		01.04.10	98.08.28	
17-A	M-13.1/A	Galdaragintza	Constr. Metálicas Ugaldetxo SAL	R. Mtnez. Huarte-Mend Id. (ICCP)	99.11.10	99.06.25	00.01.18
17-B	M-13.1/B	Mak-erreminta eta ekipo-ondasunak	Talleres Graf, S.A.L.	Matias Grande Pison (I.I.)	00/11/02	99.08.06	
17-C	M-13.1/C	Metal-arotzeria	Carp. Metálica Hnos. Fernandez SAL	Enrique Pagola Joseba Eizagirre (A.T.)		99.10.15	
17-D	M-13.1/D	Eraikuntza-biltegia	Construcciones Goiburu	Migel Mª Lasa Olarra		01.05.10	
19	M-13.2	Bestelakoak	U.T.E.	Eduardo Narro (I.I.)		00.09.15	
19-A	M-13.2/1	Metal-eraldaketak	Al-Binox, S.L.	Eduardo Narro (I.I.)		00.09.15	
19-B	M-13.2/2	Arropa-ikuztegia	Lavandería Aran-Eli	Eduardo Narro (I.I.)		00.09.15	
19-C	M-13.2/3	Metal-eraldaketak	Engranajes Ekin	Eduardo Narro (I.I.)		00.09.15	
19-D	M-13.2/4	Metal-eraldaketak	Engranajes Ekin	Eduardo Narro (I.I.)		00.09.15	
19-E	M-13.2/5	Metal-eraldaketak	Bengo Elev. y Mant.	Eduardo Narro (I.I.)		00.09.15	
19-F	M-12.2/6	Makiner. manten., konpon. eta munta.	Centaur Equipos de Flejado, S.L.	Eduardo Narro (I.I.)		00.09.15	
21	M-13.3	Termoplastikozko piezak	Birakomp, S.A.	Eduardo Narro (I.I.) Javier Fernández		00.09.15	
15	M-14	Bestelakoak	Oarsoaldeako Industrialdea, S.A.	J.A. Chavarri Sarasua		01.03.01	
3	M-15	Bestelakoak	Construbrik, S.L.	Ane Atxurra		01.01.29	
3-D	M-15.D	Arotzeria	Carpint.Arteaga,S.L	Ane Atxurra		01.01.29	
3-C	M-15.C	Arotzeria	Carpint Loren, S.L.	Ane Atxurra		01.01.29	
3-B	M-15.B	Metalen fundizioa	Fundiciones Gastesi		01.11.20	01.01.29	
3-A	M-15.A	Karrozeria	Seylan			01.01.29	



VII.03.02. Txirrita/Maleo (2002ko abenduako egoera)

LURZATI ZK.	ZONA	JARDUERA	TITULARRA	EGILEA Obra-Proiektua Jarduera-Proiektua	Jarduteko lizentzia	Obra- lizentzia	Irekitzeko lizentzia
16	I- 1.1	Jantzigintzako lantegia	North Company, S.A.	Peña Ganchegui y asociados			
14	I- 1.2	Pintura, ore eta hauts-produktuen fab.	Dyckerhoff Materiales, S.A.	Lanta, S.L. Ingeniería	01.08.02	00.12.15	
12	I-1.3	Produktu enologikoak eta lurinak	J. Laffort y Cia S.A.	Soler Bontigui, (I.I.)		01.06.11	
10	I- 1.4	Makineria muntatzea	Teurema Téc. Europea de Maquin. S.L.	Peña Ganchegui y asociados S.L.		01.04.05	
13	I-2.	Hozteko mak. fabrik. eta instalazioa	Apina, S.A.	José Antonio Manso de las Moras (I.I.)		00.11.09	
8	I- 3.1	Manufaktura-industria	Leunki, S.L.	Pedro Ayesta Eguren	00.12.11	00.07.28	
6-B	I-3.2.1.	Galdaragintzako txapa-mozketa	Oxicorte Pasajes, S.L.	Mafías Grande Pison(I.I)		00.09.29	
6-A	I-3.2.2	Galdaragintza	Ago, S.A.L.	Mafías Grande Pison		00.10.20	
4	I- 3.3	Material elektrikoa	Suministros Industriales Erka, S.L.	José Ventura Saizar	01.10.25	01.07.30	
11	I- 4.1	Industria grafikoa	Rotok Industria Gráfica, S.A.	Asier Etxabe	01.05.03	00.07.28	01.10.15
9	I- 4.2	Mat. plastik. eraldak. eta manipulazioa	Calplas	J.Antonio Gurrutxaga Javier Jócana (P.I.)		00.08.09	
7-A	I- 4.3 A		Molxer	Fernando Dueñas de la Fuente		01.04.30	
7-B	I- 4.3 B	Galdaragintza	Calderería Bon, S.L.	Fernando Dueñas de la Fuente		01.04.30	
7-C	I- 4.3 C		Electromecánicas Pasaia, S.L.	Fernando Dueñas de la Fuente		01.04.30	
2	I- 5.	13 jarduera	Oarsoaldeako Industrialdea	Zubiria Sautu/Carballo Ostolozza		00.02.18	
2-A	I- 5. A	Hegaluze-kontserbak	Pescados y deriv.	Iñaki Beltza Goikoetxea	22.11.01	01.11.09	
2-B	I- 5. B	Ontzi. eta kontserbak	Restaur., envasa...		01.11.16		
2-C	I- 5. C	Zirkuitu elektronikoak	Integr. Indus. Elect.	Juan Bergareche	01.10.25	01.09.07 01.08.10	01.08.10
2-D	I- 5. D		Itxas Marine, S.L.				
2-E	I- 5. E		Señaliz.y Seg. Surya				
2-F	I- 5. F	Lantegi mekanikoa	Talleres Launa, S.L.				
2-G	I- 5. G	Metalezko eraikuntzak	Zabinox, S.L.				
2-H	I- 5. H	Hozteko Indust. Zerb.	Frost-Bi				
2-J	I- 5. J	Kristaldegia	San Marcos				
2-K	I- 5. K	Karrozeriak	Carroc. Puerto, S.L.				
2-L	I- 5. L	Mekanika orokorrean	Trebeak, S.L.				
2-M	I- 5. M	Engranaje-fabrikazioa	Exclusivas Balbino				
2-N	I- 5. N		Guantenor			01.11.22	
5	I-6	15 jarduera	Oarsoaldeako Industrialdea	Zubiria Sautu/Carballo Ostolozza		00.02.18	
5-A	I-6 A		Breñas	Javier Jócana Gutiérrez Ignacio Garbizu Francisco Arrieta	01.10.25	01.09.20 01.09.07	
5-B	I-6 B	Biltegia	Eusko Intelec 2000				
5-C	I-6 C	Publi., Komunik., ...	Asmatu XXI				
5-D	I-6 D	Kristaldegia	Cristaler. Artxipi, S.L.				
5-E	I-6 E	Inprimategia	Diana Inprimategia				



5-F	I-6 F	Kautxua, plastikoa	Talleres Mecá. Madi Bertan, S.L.	Javier Jócana Gutiérrez	01.10.11	01.10.11	
5-G	I-6 G		Mecaniz. Fervi, S.L.				
5-H	I-6 H		Metalana Repara..	Eugenio Gtrez.-Solana	01.10.30	01.09.07	
5-J	I-6 J	Makineria lantegia Metalezko element. fabrikazioa	Mendia y Murua				
5-K,L,M	I-6 K,L,M		Composites Jareño				
5-N,P	I-6 N,P		Cromados Herrera	Manuel Michelena			
5Q	I-6 Q	Estal. elektrolitikoak					
	I-7						
	I-8						
3	EC-1		Oarsoaldeako Industrialdea	Zubiria Sautu/Carballo Ostoloza		00.02.18	
3-A	EC-1 A	Zerb. Informatikoak	Garatu Sist. Infor.	Izaskun Urruzola Morán	01.08.01	01.07.27	
3-B	EC-1B	Ingeniaritza eta diseinua	Tenkor				
3-C	EC-1C	Material elektrikoa	Estanflux, S.A.	Xabier Lekunberri	01.08.20	01.08.20	
3-D	EC-1D	Aholkularitza	Asesoría Elkoar				
3-E	EC-1E	Ingeniaritza	Suindi, S.L.		01.11.14	01.11.22	
3-F	EC-1F	Tonerren Birziklapena	Euroservitoner, S.L.	José Cruz Arrieta			
3-G	EC-1G	Buleg. Erakus. Maketak	Composites Jareño	Ramón Candelas Pérez	01.08.10	01.09.07	
3-H	EC-1H	Bulegoak	Eusko Intelec 2000		01.12.11		
1	EC-2		Oarsoaldeako Industrialdea	Zubiria Sautu/Carballo Ostoloza		00.02.18	
1-2,3,5	EC-2.2,3,5	Merkataritza-lokalak. Zerbitzuak	Oarsoaldeako Industrialdea			00.02.18	

VII.03.03. Egiburuberrri

AASSen 19. aldaketan Udaleko Osoko Bilkurak behin behinekoz onetsitakoa 2002ko maiatzaren 28an eginiko bilkuran, ondoko terminoetan deskribatzen da proposaturiko aldaketa:

Aldaketa honek 28. area: Egiburu arearen alboko Lurzoru Ez Urbanizagarriko zona erasaten du, Egiburuberrri deitu dioguna, eta baita ere 28. area: Egiburu area bera eta 43. sektorea: Zentolen sektorea; horiek dira, 29. area: Egiluze arearekin batera, AASSen beste Aldaketa baten xede, honen aldi berean beste espediente batean izapidetzen ari dena.

Zona urbanistikoki garatzeko Sprilur, S.A. enpresak orain arte egin dituen alde zurreko azterlanek eta analisiek erakutsi dutenez beharrezkoa da irtenbide bat planteatzea, eta haren hirigintza-plangintza eta antolamendua bi esparru desberdinetan oinarrituta egituratuko da, bata industrialdea eta bestea bizilekutarakoa.

Urbanizatzekeo Egokia den Lurzoruko bi Sektore lirateke, bata erabilera industrialekoa eta bestea bizileku-erabilera, ondoko izenarekin: 60. sektorea: Egiburuberrri (industrialdea) eta 61. sektorea: Sagardiburu (bizilekutarakoa).



60. sektore berriari dagokionez, 28. area: Egiburu eta 29. area: Egiluze areekin eta 43. sektorea: Zentolen sektorearekin mugakide den esparrua dugu. Erabilera industrialarekin Urbanizatzeko Egokia den Lurzoru bezala sailkatzea proposatzen da eta Plan Partzial bat idatziko dute garatzeko.

Ondoriozko esparruak Donostiako Bigarren Gerrikoa eta 29. area: Egiluze area izango ditu mugakide mendebaldean eta iparraldean lurzoru ez-urbanizagarria eta 43. sektorea: Zentolen sektorea, ekialdean 28. area: Egiburu area eta 61. sektorea: Sagardiburu sektore berria eta hegoaldean lurzoru ez-urbanizagarria eta irakaskuntzarako urbanizatzeko egokia den Lurzorua (45. sektorea).

Aldaketaren memoriak ondokoa dio:

Arestian adierazitako helburuak eta memoria honetako aurrekarien idatz-zatian eginiko azalpenek sobera justifikatzen dute aldaketa honen komenigarritasuna eta egokitasuna.

AASen aldaketa hau ezinbestekoa da Errenteriako Udalak eta Sprilur, S.A. enpresak Egiburuko zona urbanistikoki garatu ahal izateko, horretarako sinatuta duten hitzarmena gauzatzuz.

Horrek lurzoru industriala sustatzeko zona horretan Errenteriako Udalak ezarrita duen lurzoru-erreserba erabiltzea ahalbidetuko du, behin Masti/Loidi eta Txirrita/Maleoko Industria Sektoreak lohiz bete dituzten ondoren, indarrean dagoen Udal Planeamenduan bilduta baitaude.

Aldaketa hau egokitzen jotzen da, premia baten aurrean bizkor jokatzeko ahalbidetzen baitu, udal-mugarte osoaren antolamenduaren ikuspegi orokorrari begirik galdu gabe, egiten diren proposamenek une honetan idazten ari den Plan Orokorraren Dokumentuan biltzen ari diren gogoeta eta planteamenduak hartzen baitituzte abiapuntutzat.

VII.03.03. Bigarren sektorea eta LAA

28/1997 Dekretuan, otsailaren 11koan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Artezpideak behin-betiko onartzen dituena, 8. artikuluan ("Jarduera Ekonomikoetarako lurraldearen zenbatzea") honakoa ezartzen da: "Lurraldearen Antolamendurako kasuan kasuko Zatik Planak onartu arte, udal planeamenduak Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak jarduera ekonomikoetarako den lurraldearen zenbatekoari ezartzen ari zaizkion lizpideak bete beharko ditu".



VII.04. HIRUGARREN SEKTOREA

VII.04.01. Errenteriako Merkataritza Suspertzeko Plan Berezia

Eusko Jaurlaritzako Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailak, Udalarekin batera, Errenteriako Merkataritza Suspertzeko Plan Berezia egitea sustatu zuen, udaleko txikizkako merkataritza hobetzeko asmoz, une zailak bizi baititu eta etorkizunean ere oztopo handiak izango baititu udalaren inguruan merkataritza-forma berrien garapenaren eta kontsumitzaile gero eta zorrotzagoaren erosteko ohiturak eta portaeren aldaketaren aurrean.

Lan horretan, Ikertalde egindakoa, eta proiektuaren esparru orokorraren barruan Planaren kontratazioa arautzen zuten oinarri teknikoen pleguan aurkeztutako oinarriak aipatzen dira:

“Merkataritza-modu berrien garapena eta erosteko ohituren aldaketa eta gero eta zorrotzagoa den kontsumitzailearen portaera aldaketa handiak eragiten ari dira EAEko merkataritza-sarean. Hirien hirigintza-egiturak, aparkatzeko beharrak (...) asetzeko gero eta aukera gutxiago dituztelarik, hirietako merkataritza jardueraren garapena zailtzen du.”

“Merkataritza tradizionalaren aliantza estrategikoen espezializazio urriari eta maila txikiari lotuta, hau da, merkataritzaren modernizazio eza eta eskaerara ez egokitzeak, erosketak lasai eta eroso egiteko leku desegoki bihurtzen dituzte. Orain arte azaldutako guztiak ondorio bezala hiriguneen protagonismo-galerako prozesu bat ekar dezake, eremu ekonomikoan edo komertzialean eragingo duena, bai eta gizarte-eremuan ere.”

“Egoera honen aurrean, sektore publikoak kontuan hartu behar du Merkataritza Suspertzeko Plan Bereziak lantzeko aukera, adierazi ditugun baldintzak egonik suspertzeko aukera dagoen lekuetan bereziki. Merkataritza Suspertzeko Plan Berezi hauen lanketak area edo eremu jakinen xehetasun handiko azterketa bat eduki behar du, egungo egoeraren eta etorkizuneko egoeraren diagnostikoa eta neurri zehatzen definizioa, epe ertain eta epe luzeakoa, hainbat arlotako ekintzak uztartuz; hirigintza, merkataritza, enpresa, administrazioa, etab., merkataritza-egitura orekatua lortzeko eta suspertu nahi den eremu geografikoaren merkataritza-erakarpina bultzatzeko.”

Azterlanaren ondorio bezala ondoko arlo hauek nabarmendu daitezke:



“ Etokizunerako aurkezten zaizkigun erronkak Errenteriako erdigunea merkataritza-erreferentzia bezala berreskuratzeari lotuta datoz, hala herriko biztanleentzat nola inguruko herrientzat ere; Lezo, Oiartzun edo Pasaia.”

“ N-1 errepidea Nafarroako etorbidetik kentzeak aukera handia emango du herritarrek bide hau berreskuratzeke, bai eta egungo Herrigunea Iztietarekin lotuko duen hiri-multzoko bat sortzeko ere.”

“ Merkataritzaren eragile eta erakarpide bezala, establezimendu bat edo establezimendu-multzoko bat ezar daiteke. Establezimendu hauek merkatalgune batean batuko lirake, ibilgailuentzako lekua edukiz; gune hau Errenteriak dituen beharretara egokituko litzateke eta, neurri batean bederen, inguruan dauden hipermerkatuek eragiten duten gastu potentzialaren ihesa saihestuko luke.”

VII.04.02. Hirugarren sektorea eta LAA

LAAetan, 9. kapituluaren “Lurralde Ereduaren Inplikazioak Lurzoru Politikan”, 4. atalean “Ekonomi Jarduerak garatzeko lurzoru-politiketarako orientabideak”, honakoak adierazten dira:

“LAA hauetan irizpide nagusitzat zenbait ekipamendu jasotzen duten hirien eta beren lurralde-funtzionaltasunaren arteko lotura hartu da, EAEko hirien sistemaren egitura orekatsua sendotzeko xedez. Jakina da zenbait ekipamendu ez datorrela bat hiri-hierarkiaren ohiko eskemekin; alabaina, oro har, hirugarren sektoreko ekipamendua, ekipamendu administratiboa eta merkataritza-ekipamendua lurraldea modelatzeko tresna indartsua dira eta Ekonomi Jardueraren Areetako berezko beharrezkoak eta lerrunak azalduko dituzte.”

“Aurreikus daitezkeen merkataritza-ekipamendu pribatuaren transformazio-prozesuen aurrean, hiri eta lurralde-plangintzak bateragarritasunak bilatzen saiatu beharko du merkataritza-tipologia berrien eta hiriburuetako eta lurraldearen Eskualde Egiturako burutzapen guneetako hiribizitza eutsi eta indartzeko exijentzien artean.”



Kontsiderazio hau, jakina, Errenteriako herriguneari aplika dakioke, daukan kokapenagatik eta hurbileko inguruko udalen ardatz izateko duen bokazio historikoagatik.



VII.05.

PASAIAKO BADIA SUSPERTZEKO ERAKUNDEARTEKO BATZORDEA

1997ko urriaren 23an, "Pasaiako Badiako Erakundearen Arteko Batzordea" eratu zen, eta honako aldarrikapena egin zuen:

"Euskal Autonomia Erkidegoko Artezpideen arabera, Gipuzkoa barruan Donostiako Eskualde-Egituran kokaturik, Pasaiako Badia Artezpideetan Donostiako ekialdeko Ingurabide bezala izendatzen den Eskualdean dago, Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Errenteriak osatutakoan, hain zuzen ere."

"Hainbat adierazle sozioekonomikok azaltzen duten bezala, Pasaiako Badiak, eta orokorrean Donostiako ekialdeko Ingurabide osoak, nabarmen deprimitutako inguru bat osatzen dute. Horregatik, behean sinatzen dutenen ustez, antzeko egoeratarako erabiltzen diren jardueraren plan eta metodoez baliatu behar da bertan."

"Horretan datza gaur eratu dugun Erakundearen arteko Batzordea osatzeko arazoia."

"Inguruko udalek, Pasaiako eta Errenteriako Alkatetzek ordezkaturik; Eusko Jaurlaritzak, Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko Sailburuak bai eta Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuak ordezkaturik; Gobernu Zentralak, Lurralde Administrazioetarako Estatu Idazkariak eta Aurrekontuen Análisi eta Programaziorako Zuzendari Nagusiak ordezkaturik; eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Diputatu Nagusiak eta Garraio eta Errepide Diputatuak ordezkaturik, Erakundearen arteko Batzorde bat osatzea erabaki dugu. Batzorde honek ekimen pribatuak bertan parte hartzeko aukera onartzen du eta ondoko lan-ildoak garatu nahi ditu":

- a) *Daukaten irismenagatik eta trantsendentziagatik Pasaiako Badiarako eta ingururako estrategikoak izan daitezkeen proiektuak aztertu, definitu eta, hala badagokio, bideragarri bihurtu, trataera espezifikoak eduki behar dutela ikusiz gero.
"Helburu horrekin, Batzordeak, hasteko, erakunde publikoek nahiz eragile pribatuek landu dituzten proiektuak eztabaidatu eta aztertuko ditu."*
- b) *Definitzen diren ildo eta proiektu estrategikoen arabera, Administrazio bakoitzak dagokion eskumen-eremuan Zona horretan garatu beharreko inbertsio publiko nagusiak ituntzeko eta arrazionalizatzeko ahalegin handiagoa egiteko bultzada ematea. Ituntzeko ahalegin honetan Europako finantzaketa jaso ditzaketen jarduerak barne hartuko ditu bereziki.*
- c) *Batzordearen ustez, deprimitutako inguru guztietan gertatu den bezala, ezin da Pasaiako Badiaren suspertzea ekimen pribatua baztertuta ez planteatu ez eta gauzatu ere. Horregatik, Batzordeak, lehen unetik ahalegin honetan ekimen pribatuaren partaidetza bilatu behar duela jabetzen denez, partaidetzarako*



deia egiten du bai proiektuak aztertu eta definitzeko garaian bai eta bideragarri bihurtzerakoan ere."



VII.06.

ERRENTERIA GARATUZ UDAL SOZIETATEA – ERRENTERIA GARATUZ SOCIEDAD MUNICIPAL, S.A.

VII.06.01 Garapen ekonomikorako Udal Sozietatearen sorkuntzaren kronologia: “Errenteria Garatuz Udal Sozietatea / Errenteria Garatuz Sociedad Municipal, S.A.”

1996.10.25 Osoko Bilkura: Udal Azokaren erreforma eta suspertzerako eskaera jasotzea.

1999.01.29 Osoko Bilkura: Niessenen jarduera ekonomikoa gauzatzeko Batzorde Berezi bat eratzeke proposamena.

1999.04.23 Osoko Bilkura: Jarduera Ekonomikoari dagokion Memoria aztertu eta kontuan hartzeko proposamena.

1999.06.04 Osoko Bilkura: Jarduera Ekonomikoa garatzeko Memoria onartzeko proposamena. Udal Sozietatea sortzeko proposamena.

VII.06.02. “Errenteria Garatuz Udal Sozietatea – Errenteria Garatuz Sociedad Municipal, S.A.” sozietatearen eraketa

Udal Osoko Bilkurak 1999ko ekainaren 4an egindako bileran honakoa onartu zuen:

1. Sustapen-ekonomikorako jarduera garatzeko ekimen publikoaren jarduerari dagokion Memoria onartzea, egindako proposamena barne hartuz eta horretarako osorik udal kapitala izango duen Sozietate Anonimo bat eratzea, izen honekin: “Errenteria Garatuz Udal Sozietatea – Errenteria Garatuz Sociedad Municipal, S.A.”
2. Sozietate horren Estatutuak onartzea.
3. Sozietatearen kapital osoa osatzen duten sei mila hamabost akzio izendunak harpidetzea, akzioen zenbateko osoa ordainduz.
4. Administrazio Kontseiluko kideak izendatzea.

Erabaki hori 1999ko uztailaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

VII.06.03. Jarduera ekonomikoa garatzeko justifikazio-memoria

Justifikazio-memoriaren sarreran honakoa adierazten da:



A) Aurrekariak: udal azoka

Ohiturari jarraiki, Errenteriako Udalak zuzenean kudeatu du udal azokaren zerbitzua. Bertako handizkariak zerbitzuaren oinarri den jabego publikoko zati baten erabilera- eskubideaz baliatu izan dira. Hala eta guztiz ere, 1999ko urrian eta bertan kokatutakoen proposamenez, udal azoka hori erreformatu eta suspertzeko administrazio-espeditentari hasiera eman ziztaion.

Horrela beraz, handizkariak azterlan bat egin zuten. Azterlan honetan "hiri-merkataritzako lokomotora" bat eratzea proposatu zuten azoka tradizionalaren zerbitzua eskaintza osagarri berri batekin uztartuz, herriaren inguruan dauden merkatalgune handien aurreran alternatiba izan zedin. Proposamen hori onartuz, Udalak zerbitzuaren zeharkako kudeaketa egitea erabaki zuen, kontsezio bidez hain zuzen ere, eta horretarako lehiaketa publikoa deitu zuen.

Lehiaketa horrek ez zuen arrakastarik lortu, eskaintza bakarra aurkeztu baitzen, azokako handizkariak biltzen zituena. Proiektuaren arrakastarik eza agian aurreikusitako merkataritza-jarduerak behar bezala gauzatzeko proposatutako ekipamenduaren kokapenak zekartzan arazoengatik gertatu zen (sarbideak eta trafikoa, karga eta deskargarako eremuak, aparkatzeko lekuak, eta abar.).

B) Egungo planteamendua. Merkataritza suspertzea

Gauzak horrela, Udalak udal azokaren zerbitzuari zegokion jarduera-estrategia berriz aztertu behar izan zuen, jada planteatu zen merkataritza suspertzeko saioa ahaztu gabe.

Ondorioz, merkataritzako eta azokako jarduera horiek beste jarduera batzuei lotuta ikusten hasi ziren, kultur eta kirol jarduerari lotuta, hain zuzen ere. Une horretan Udala, gainera, hiriguneko beste inguru batean (Niessen fabrika zena) "Errenteriako Kulturgunea" deituriko kultur-eraikin bat sortzeko jarduerak garatzen ari zen, garai hartan proiektu horren 1. Fasearen burutzapenean zeudelarik.

Hori horrela, Udalak orain dela gutxi, Errenteriako herrigunea merkataritza, kultur eta aisiarako eremu bezala eta kultur eta kirol zerbitzuak merkataritza eta aisia-eskaintza erakargarriarekin uztartuz suspertzeko asmoz, planteaturiko arazo guztiei interbide global bat emateko aukera aztertu du, eta horretarako honakoa aurreikusi du:

- * Udal azoka garai batean Niessen fabrika zegoen lekun ipintzea, inguru horretan ipini beharreko ekipamendu kulturalaren alboan.
- * Udal frontoia (Niessen fabrikari lotua) azokaren egungo kokalekura eramatea.
- * Niessen fabrika zegoen lurzatian hiri-merkatalgune baten sorkuntza bultzatzea.



Plan Orokorraren Bulegoa
Oficina del Plan General

- * Kultur erabileretarako destinatuturiko eraikinetako batzuetako behealdeetan merkataritza-jarduerak egiteko aukera bultzatzea.
- * Egungo frontoiaren eta Niessen fabrika zaharraren lurzatiaren azpialdean aparkaleku bat egiteko aukera bideratzea, aurreikusitako kultur, merkataritza eta aisia-erabileretarako azpiegitura lagungarria izan dadin.
- * Niessen fabrika zegoen lurzatian karga eta deskargarako lur azpiko eremu bat sortzeko aukera bultzatzea, aurreikusitako merkataritza-erabileren laguntzarako azpiegitura bezala.
- * Etxebizitzak, merkataritza-lokalak eta garajeak sustatzea gaur egun azoka dagoen lekuan, frontoi berriaren alboan.

Proiektua eremu berri hauetan kokatzeak abantaila nabarmenak ekarriko lituzke hasiera batean aurreikusitako kokapenari dagokionez, hala nola:

- * Trafiko-arazoak nabarmen murriztuko liriateke, saihesbidea hemendik gutxira irekiko dela kontuan hartuz batez ere.
- * Azoka tradizionalarentzat merkataritza-jarduera zabaltzeko aukera gehiago ematen ditu.
- * Frontoiaren egungo kokapenaren arazoari irtenbide bat eman lekiok, kulturgunearen garapena nabarmen zailtzen baitu.
- * Merkataritza-jarduerak kultur jardueren alboan ipintzeak azken hauen garapen handia eragin dezake.
- * Kulturgunearen burutzapenak aurrekontuari dagozkion arazoak sortzen ditu, egin beharreko inbertsioen kostu handia dela eta. Inbertsio hauek neurri batean murriztu daitezke merkataritza-jardueraren edo higiezin jardueren garapenaren zuzeneko edo zeharkako ustiapenaren ondorioz (frontoiaren alboan, gaur egun azoka dagoen lekuan, etxebizitzan, denden eta garajeen sustapena).

Are gehiago, irtenbide global edo osatu baten bilaketa-testuinguru honen ondorioz kontuan hartu da honako aukera: hasiera batean jarduera ekonomiko berriak sustatzea eta gero agian betetzea ere, "garapen ekonomikoko" jarduerak deitu izan direnetan barne har daitezkeenetan. Honi lotuta, epe motzean eta epe ertainean udalak sustatu eta garatu ditzakeen jarduera eta zerbitzu ekonomikoen sorta zabaltzen joan da, hala Niessen fabrika zaharraren lurzatian nola udalerriko beste inguru batzuetan ere, hasierako honako sailkapen hau ezarri ahal izateko moduan:



- * Azokako zerbitzu publikoa
- * Merkatalgunea
- * Hirigintza-kudeaketa:
 - Hirigintza-azterlanak egitea
 - Hirigintza-planak burutzea
 - Hirigintza-jarduera
 - Industria-lurzorua sustatzea
 - Etxebizitzen sustapena eta birgaitzea (PERCH/AZBPB)
- * Kirol eta kultur erabileretarako instalazioen edo ekipamenduaren kudeaketa eta ustiapena (pilotalekua, auditoriuma, etab.)
- * Udalaren garapen ekonomiko osoan lagundu dezaketen beste hainbat jarduera.

VII.06.04. "Errenteria Garatuz Udal Sozietatea – Errenteria Garatuz Sociedad Municipal, S.A." sozietatearen helburua

"Errenteria Garatuz Udal Sozietatea – Errenteria Garatuz Sociedad Municipal, S.A."ren sozietate helburua, bere Estatutuen 2. artikuluan ezariak, ondokoa da:

"Errenteriaren garapen ekonomiko integralean zuzenean edo zeharka laguntzen duten edo lagundu dezaketen jarduera ekonomiko edo zerbitzu publiko guztien sustapena eta garapena du helburutzat sozietateak.

Hain zuzen ere eta laburbilduz, sozietatearen helburuetan ondoko jarduerak egitea barne hartzen du:

- a) *Hornidurarako azokaren udal zerbitzu publikoaren sustapena edota garapena.*
- b) *Errenteriako udalean kokatutako denden sustapen eta garapena.*
- c) *Hirigintza-kudeaketako edozein jardueraren sustapena edota garapena: hirigintza-azterlanak, hirigintza-proiektuak, hirigintza-plangintzaren burutzapen-jarduerak, industriarako lurzorua eta bestelakoa sustatzea, etxebizitzak sustatzea eta birgaitzea, etab.*
- d) *Udal instalazioen edo ekipamenduen sustapena edota kudeaketa eta ustiapena.*



e) *“Enpresen inkubagailu” edo enpresen haztegien jarduera sustatzea edota garatzea.*

Adierazitako sozietatearen helburua sozietateak berak guztiz edo zatiz garatu ahal izango du zeharka, helburu antzekoa edo berdina duten sozietateetan edo bestelako pertsona juridikoetan parte hartuz.”



VII.07. BADIA BERRI, S.A.

Udal Osoko Bilkurak 2001eko azaroaren 30ean egindako bileran, Donostia, Errenteria, Pasaia, Lezo eta Oarsoaldea Garapen Agentzia SAK sinatu beharreko Hitzarmena onartzeko erabakia hartu zuen. Erabakiaren arabera Pasaia Badiako Urban II Programaren burutzapenean dauden eskubideak eta obligazioak ezartzen dira, bai eta Donostiako Udalak eta Oarsoaldea Garapen Agentzia SAK parte hartzen duten sozietate anonimo bat sortzea ere (Errenteria, Pasaia, Lezo eta Oiartzungo udalek osatua), hiri-berrikuntzako arloan, enpleguan, gizarteratzean, mugikortasunean, ingurumen-kalitatean, azpiegituretan eta hiri-gobernuan, parte hartzen duten administrazioen artean dagoen lurralde eremuaren barruan, Hiri-Zonen Zaharberitze Ekonomiko eta Sozialari dagokion Ekimen Komunitariorako Kandidatura bezala aurkeztutako Hiri-Berrikuntzarako Programa Estrategikoa ("URBAN II") zuzen eta egokiro kudeatzeko.

Sozietate honen helburua honakoa da: hiri-berrikuntzako arloan, enpleguan, gizarteratzean, mugikortasunean, ingurumen-kalitatean, azpiegituretan eta hiri-gobernuan, parte hartzen duten administrazioen artean dagoen lurralde eremuaren barruan, Hiri-Zonen Zaharberitze Ekonomiko eta Sozialari dagokion Ekimen Komunitariorako Kandidatura bezala aurkeztutako Hiri-Berrikuntzarako Programa Estrategikoa ("URBAN II") zuzen eta egokiro kudeatzea; eta, orokorrean, hiri-berrikuntza integralera eta lurraldearen ingurumen-kalitatearen eta kalitate sozioekonomikoaren hobekuntzara bideratutako jarduera-mota oro garatzera. Hori guztia, "Pasaia Badiak" bezala definitutako Donostiako Inguru Metropolitarren jarduera hartuz lurralde-eremu bezala.